



Ahal eta ezin

Zenbait galde-erantzun



1. Zein da forma egokia: *ezin naiz etorri* **ala** *ezin dut etorri*?

«Ezin naiz etorri» da forma egokia.

Aditz nagusiak¹ erabakitzen du zer adizki laguntzaile erabili: aditz nagusia iragankorra bada, **DU** da laguntzailea; iragangaitza bada, berriz, **DA**.

- Ezin naiz joan. *Ezin dut joan
- Ezin dut ekarri.

«Ahal» partikularekin berdin jokatzen da:

- Joaten ahal naiz *Joaten ahal dut
- Ekartzen ahal du.

¹Adibidean, “**etorri**” dugu aditz nagusia.



1.

Dena dela, aditz nagusirik gabe agertzen direnean, **DU** laguntzailea hartu ohi dute **ezin** eta **ahal** partikula modalek.

GAIZKA.- Elkarrekin gera gintezke.

ANE.- **Ezin dut.**

KANDIDO.- Ez kezkatu, beste egun batean joan gaitezke.

LEONOR.- Hitzematen dizut; **ahal badugu**, aste honetan bertan, ok?

*Goenkale corpusetik
ateratako adibideak*



2. Zein da erabilera zuzena: *joaten ahal naiz* edo *joan ahal naiz*?

✓ *joaten ahal naiz*

Aditz-izena erabiltzea da molderik zabalduena ekintza burutugabea adierazteko. Ekialdeko hizkeretan erabiltzen da batik bat.

- Guri ere **gertatzen ahal zaigu**.
- Amodioak bide bihurriak **hartzen ahal ditu**.
- Itsasgorarekin okerrera **egiten ahal du** egoerak.



2. ✓ joan ahal naiz

Tradizio urrikoak¹ dira «joan ahal naiz» eta «ekarri ahal dut» moldeko aditz-perifrasiak. Gaur egun, ordea, izugarri zabaldu da molde *berri* hori, ahalerazko formen kaltean zabaldu ere.

Dena dela, erabilera tekniko jaso baterako **ez dira gomendatzekoak** halako aditz multzoak. Betidaniko ahalerazko adizkiak ditugu maila horretarako. Adibidez:

- Motorra 100 Hz-eko maiztasun batekin **abia daiteke**, eta, ondoren, maiztasun hori poliki-poliki txikituz **joan daiteke** 50 Hz-era heldu arte.
- Fitokromoak berehala **alda ditzake** mintzen ezaugarriak, argi-pultsua jaso eta segundo gutxitara.

*EHU*skaratuak corpusetik ateratako adibideak

¹ Izan, badira literatura-tradizioan «joan ahal naiz» eta «ekarri ahal dut» moldeko adibideak; 'behar izan' eta 'nahi izan' aditz lokuzioen analogiaz sortuak dira halakoak. Guztiarekin, **ahalerazko adizkiak erabiltzea izan da ohikoena**. (Ikus [ahal](#) sarrera *Ororariko euskal hiztegian*).



Aspektua eta AHAL

Aspektuari dagokionez, burutugabeak dira *joaten/joan ahal naiz*. Hartara, aspektua adierazten delarik, honako aditz multzo hauek ditugu *ahal* partikula erabilita:

ERA BURUTUGABEAK

- **Joaten ahal naiz¹.**
- **Ekartzen ahal dut.**
- **Joan ahal naiz.**
- **Ekarri ahal dut.**

¹Letra lodiz, molderik zabalduenak.

ERA BURUTUAK

- **Joaten ahal izan dira.**
- **Ekartzen ahal izan dute.**
- **Joan² ahal izan dira.**
- **Ekarri ahal izan dute.**

² Alde eta aldi guztietan erabili da eta erabiltzen da partizipioa, ekintza burutua adierazteko.



Aspektua eta AHAL

GEROALDIKOAK¹

Ezberdintasun handiak ageri dira euskalki batetik bestera. Honako aukera hauek ditugu literatura-tradizioan:

- | | |
|---------------------------|------------------------------|
| •Joan ahal izango da. | •Egin ahal izanen/izango du. |
| •Joan ahalko da. | •Egin ahalko du. |
| •Joaten ahalko da. | •Egiten ahalko du. |
| •Joango/Joanen ahal da. | •Egingo/Eginen ahal du. |
| •Joango/Joanen ahalko da. | •Eginen ahalko du. |

¹ *Orotariko euskal hiztegian* **ahal** sarreran jasotako adibideak ikusita ateratako aditz multzoak. Letra lodiz, aditz multzorik ohikoenak.



3. Zein da hurrenkera zuzena: *ezin dut edan* ala *ezin edan dut*?

Biak dira zuzenak.

Zenbaitentzat, hala ere, adierazkorragoa da «ezin edan dut».



4. Aditz multzo hauek, egokiak al dira: *joan ahal naiteke; egin ahal dezakezu?*

Bai. Ahalerazko aditz laguntzaileekin erabil daiteke **AHAL** partikula. Dena dela, ez dirudi ahaleraren ohiko esanahia aldatzen denik:

- Joan ahal naiteke ≈ Joan naiteke
- Egin ahal dezakezu ≈ Egin dezakezu

Alegiazko formekin ere bai:

- Nahiago nuke zerbait **egin ahal izango banu**.
- Hegaz **egin ahal izango genuke**, gure gaitasunaz guztiz konbentzituta egongo bagina.

James Matthew Barrie, *Peter Pan*. Euskaratzailea: Julen Gabiria.

Orobat, **EZIN** partikula ahalerazko adizkiekin:

- Ezin naiteke joan** ≈ Ez naiteke joan ≈ Ezin naiz joan



4.

Bestalde, Ekialdeko euskalkietan, EZINen ordez «**ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia + ahal**» egitura erabiltzen da sarritan. Halako formak ere egokitzat jotzekoak dira estandarrerako:

- Prezio horretan **ez du** nornahik **erosten ahal**.
- Haiek gabe **ez du** deus **egiten ahalko**.
- Josepek bere lantokira telefonatu zuen errateko biharamunean ere **ez zela** lanera **joaten ahalko**.

Janbattitt Dirassar, *Bihotzeko mina*, 1997.
[Moldaturik]



Jakingarri gehiago, hemen:

Alberdi, Xabier; Sarasola, Ibon (2001). "24. *Ahal eta ezin* aditz modalak: *joaten ahal naiz, ezin dut irakurri...*". In *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*, Bilbo, EHU, 155.-156. or.

Euskaltzaindia (1996). "*Ahal eta ezin*". In *Jagonet galde-erantzunak*.

Euskaltzaindia (2002ko urtarrila). "*Ahalera eta ezina: joan ahal naiz, joan naiteke / ezin joan naiz, ezin naiz joan, ez(in) naiteke joan*". In *Jagonet galde-erantzunak*.

Euskaltzaindia (2013ko martxoa). "*Ahal izan, ahal izaten, ahal izango, ahalko*". In *Jagonet galde-erantzunak*.

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea (2002). "18.4. *Ahala eta ezina*". In *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo, Euskaltzaindia, 420.-423. or.

Petirena, Patxi (2011). "9.6. *Aditz modalak*". In *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 214. or.